

2009KO ABENDUAK 10

10 DE DICIEMBRE DE 2009

ORGANOA: UDAL BATZARRA

ORGANO: AYUNTAMIENTO PLENO

BATZARRALDIA: EZ OHIKOA

SESION: EXTRAORDINARIA

TOKIA: UDALETXEKO OSOKO BILKUREN ARETOA

LUGAR: SALON DE PLENOS DE LA CASA CONSISTORIAL

EGUNA: 2009KO ABENDUAK 10

DIA: 10 DE DICIEMBRE DE 2.009

HASIERA ORDUA: 19:00

HORA DE COMIENZO: 19:00

LEHENDAKARIA: Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA.

PRESIDE

ZINEGOTZIAK: BERTARATUTAKOAK

CONCEJALES: ASISTEN

Andoni ETXANIZ OSA  
Lide AMILIBIA BERGARETXE  
Unai MANZISIDOR ANDONEGI  
Manuel ZUBIA ARTABE  
Nerea EPELDE AZKUE  
Joseba Josu AZPIAZU AZKARRAGA  
Pilar ETXABE IRIONDO  
Paloma HEREDERO NEGREDO  
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ  
Cristina FORCADA UNANUE.  
Xabier OLAIZOLA ANTIA.

EZ DIRENAK BERTARATU:

NO ASISTEN:

Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA

IDAZKARIA: GORKA URGOITI AGIRRE  
SECRETARIO:

Alkate jaunak bilera eratutzat Se da por constituida la sesión por  
ematen du. el Alcalde-Presidente.

ALKATE-LEHENDAKARIA (EA): Arratsadeon esan bezala, gaur abenduak hamar, osteguna, arratsaldeko zazpiretan ezohiko pleno honi hasiera emango diogu.

Aurrekoan geratu ginen bezala, ezohiko plenoetan ere ez gertatzeko aurrekoan gertatu zitzaiguna, aurreko plenoan gertatu zitzaiguna, aurreko akta onartuko dugu, bidezko baldin bada.

Beraz, Aurrenengo puntua:

### **AURREKO BILERAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKO BALDIN BADA: (2009.11.26)**

Bateren batek, zerbait esateko? Inork ez.

Ba... besterik gabe onartutzat jotzen da.

Bigarren puntua: **HIRIGINTZA.-**

### **EUSKO JAURLARITZA, ZUMAIA LANTZEN ETA ZUMAIAKO UDALEN ARTEKO HITZARMENA ONARTZEA, BIDEZKO BALDIN BADA.-**

Dagoeneko toki askotan jardundako gai bat da; bai Zumaia Lantzenen, bai Hirigintza batzordean. Azkenengo hirigintza batzordeko diktamena ere badaukagu eta aldeko bost alderdi guztien aldeko irizpenarekin eta bakarrik izango litzateke orain Eusko Jaurlaritza, Udala eta Zumaia Lantzenen arteko hitzarmena egitea eta honekin udalaren tramitazio guztia bukatuko genuke eta bakarrik Eusko Jaurlariza faltako litzateke bere tramitazioak aurrera eraman, onartu eta hori egiten duenean ba... hiruen arteko hitzarmen hau, sinatzeko ba... dagoeneko sinatzea izango litzateke.

Xehetasunak uste dut emanda daudela toki denetan, ni ez naiz gehiago luzatuko, Andonik -lo único- zerbait gehiago gehitu nahi baldin baduzu baina nik uste dut badakigula zerri buruz ari garen hitzegiten –sobradamente- esaten den bezala, ez?

Andoni, zerbait esateko?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Zenion bezala, batzorde desberdinetan eta Zumaia Lantzenen onartutako, bueno... onartutako, Zumaia Lantzenen onartu da, eta hirigintza batzordean irizpena egina dago, orain Plenoari dagokio onartzea edo ez; eta iruditzen zait operazioaren zenbakiak, etxebizitza kopurua, zein bloke izango liratezkeen, zein bloke..., zer etxebizitza erregimenetara bideratua egongo litzatekeen eta parametro ekonomikoen ba.. egokitasuna ere ba... erakutsia daudela baina bueno... bateren batek zalantza bat edo izango balu, argitzen saiatuko ginateke.

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA) : PNV zerbait esateko,

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.(EAJ-PNV): Ez zalantzari buruz, guk pixkat nahi duguna adierazi da, nahiz eta oposizioan egon gure helburua dela momentuan dauden alternatibei ahal den alternatiba egokiena aukeratu, ba... Zumaiarrentzat onen... ba... helburu onenak lortu nahian, ez?

Eta hitzarmen honekin ere berori gertatzen zaigula, dauzkagun posibilitateen artean eta Zumaia Lantzenen egoera ekonomiko larria ikusita, ekarri edo planteatzen duzuten alternatiba hau, onargarria iruditzen zaigu eta diktamenean ere baietzkoa eman genuen, nahiz eta jakin gu gobernuan egongo baginake segurazki hau ez zela izango planteatzen genuen irtenbidea, baina bueno esaten nuen bezala egoera ekonomikoa oso txarra da, udalen aldetik proiektu berria Zumaia Lantzeni buruz, edo Zumaia Lantzenek aurrera egiteko proiektu berririk ez da ikusten; ez da ikusten ere Zumaiako udalaren aldetik Zumaia Lantzeni ba.. ez dakit, injekzio ekonomiko bat edo abal bat emateko modurik, orduan ba... nolabait kanpo finanziaqueta edo Gobernutik datorren miloi eta laurogehi mila euro hauek behar-beharrezkoak dira ba... Zumaia Lantzenek bizirik irauteko eta Puntanuetari irtenbide bat emateko.

Horregatik, baietzkoa ba... horrela ikusten dugulako; momentu hontan ez dagoelako beste irtenbiderik edo ez duzutelako planteatu irtenbide hobeagorik.

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): PSOE,

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE).- Sí, algo que decir, sí.

Sobre todo, porque por lo menos a mí me gustaría aclarar en este momento, más que aclarar, certificar de alguna manera que a la comisión de Gobierno os ha llegado un aguinaldo con anticipación al día 24 de Nochebuena, porque debido a la política que habeis llevado en los... prácticamente, bueno... en los dos años que llevamos de cara a Zumaia Lantzen pues si no hubiera sido este acuerdo y el posible si se lleva a cabo, o se firma de... Torreaga, pues la verdad que podríamos estar ahora mismo pues.. no sé encendiendo la vela por la defunción de Zumaia Lantzen, ante la imposibilidad económica de seguir trabajando.

Y lo que supone no sólo éso, sino el hecho de la necesidad de endeudamiento, el coste que por otra parte se quiere reducir en cuanto al gasto que tenía en sí la antigua gestión; la nueva entraría con un déficit económico importante y no menor gasto financiero por el pago de los intereses de la deuda de Zumaia Lantzen; por lo tanto creo que es un aguinaldo que os ha venido, pero que por eso no vamos a dejar de aprobarlo, porque creemos que lo principal ya no es la forma de gestionar la política que se ha llevado hasta ahora con Zumaia Lantzen, sino la necesidad de gestión por parte de la misma de Zumaia Lantzen y el Ayuntamiento en general y en beneficio de los Zumaiarras; por lo tanto nuestro voto no puede ser más que afirmativo en el acuerdo y dar nuestro visto bueno, aunque ya lo digo nos gustaría que este mismo acuerdo hubiera podido llegar en otras condiciones y Zumaia Lantzen hubiera sido aún más positivo que lo que ya en sí es en este momento.

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA) : Aralar-Alternatiba,

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.(ARALAR/ALTERNATIBA): Bai arratsaldeon, duela hamabost egun ospatu zen plenoan esan genuen operazio honen alde gaudela, baina ekonomikoki udaletxearentzat errrentagarria den jakiteko, datu batzuk behar genituen.

Ze kostu izan duen lurak , espropiazioek etbr... Eta orduan ez genituen ez zitzaizkigulako eman atzera bota behar izan genuen eta gaur berriro bildu, hau onartzeko bakarrik.

Pleno hartan eskatu genuen bezala hirigintza batzordetik gai hau pasa da, guk eskaturiko datuak eman zaizkigu eta orain bai, onartu dezakegu proposamen hau, beraz, aldeko botoa emango diogu

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA): Oso ondo, zuek, Andoni

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Nik, zein zeintzutan bozkatuko dudan edo bozkatuko dugun, uste dut ez dagoela zalantzarik, baina bai... pixka bat egiten diren komentario batzuei erantzun nahiko nieke, zeren, ez dakit, badirudi, operazioa ona dela eta horregatik egiten dugu alde, hitzarmen honen alde, baina badirudi ona dela esatea min ematen duela, ez? Eta badirudi ba.. diskurtso batzuk egin dituzten irakurketa katastrofistak neurri batean desitxuratu egiten dituela eta badirudi zulo beltz batera eramaten gintuen Gobernu honek, ¡kontxo! ba... behingoz zerbait ondo egin duela eta hori errekonozitzea ematen du kostatu egiten dela eta ba... hitzarmenaren kontenidoari hitz egin beharrean ba... bueno beste mezu, ez dakit, ¡ona da, baina hobeia izan zitekeen, gu egongo bagina! Klaro ez dakit, nik gaur hemen esango banu, ez, ez, Gobernu honek dena ondo egiten du, ez dauka akats bat bera ere eta hartu ditugun erabaki guztiak asmatu ditugu ehuneko ehunean, gezurra esango nuke. Baina egunero hemen ere egotea esaten, ba... kontrakoa ere, ez? Aginaldo bat etorri zaigula?, ez dakit, -que hemos encendido una vela- nik uste dut, hemen ere, gauzak gaizki egiten direnean, ba... kritikatzeko gaizki egiten direla iruditzen zaizuelako, ba.. bai. Baina gauzaren bat noizean behin ados baldin bagaude egokia dela eta ondo egingo dagoela, ba... bakoitzari berea, eta hemen ez dago ez velarik, eta ez aginaldorik; hemen dago lana eta hemen dago batzuekin eta besteekin emandako jarraipena, eta lan horren fruitua hemen dago eta fruitu hau dirudienez gustatzen zaigu eta hori esatea kostatu egiten da, ba... nik uste dut onartzen baldin badugu zerbaitengatik dela, hobeia izan zitekeela dena da mejorablea, baina hau ona da; Herriarentzat ona da; Zumaia Lantzenentzako ona da; eta Zumaiako Udaletxearentzako ona da; baina ona hiru aldiz jarraian esatea, badirudi beti dena txarra izan behar duela eta dena ba... enborronatu egin behar dela. Nik uste dut benetan hitzarmen honek hirigintz politikan lehen bat eta orain bat markatuko duela, lehendabizikoz alokairuzko etxebizitzak egiteko aukera edukiko dugula eta bueno... horrelako akordioak bere denbora eramaten dute, bere lanketa eramaten dute eta guk nola jorratu dugun bidea eta zorionez ondo atera zaigu; gaizki atera izango balitzaigu? Hau ondo atera zaigu beste batzuk akaso ez zaizkigu ondo aterako, baina hau bai, orduan ba... beste kontu batzuetaz ez dezagun hitz egin baizik eta mahai gainean daukagunaz; nire ustez hitzarmen ona da, akordio ona da, Zumaiak irabaziko du eta Herriak irabaziko du, así que gure aldeko bozka,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA): Nik, pixkat ez errepikatzeagatik Andonik esan duena, baina bai behintzat gauza batzuetan inziditu, bai.. garbi lagako nahiko nukeena da, bai Udal Gobernutik, bai gure alderditik hauteskunde kanpainaren hasieran esan genuela alkilerrezko etxebizitzaren alde apustua egingo genuela eta hau dela emaitza, beraz, ez datorrela

inongo –vela- jarri beharrik hau gertatu dela ikusteko, baizik eta, gure programan agindutako zerbait egitera goazela.

Ahalegia, gestioak orain urte t´erdi hasi genituen eta berdin da nolako egoera ekonomikoa zegoen, izan ere, guk, etxebizitza, alkilerrezko etxebizitza baten aldeko apustua egiten genuelako, orain urte t´erdi Eusko Jaurlaritzan beste Gobernu bat zegoen, gaur egun beste bat dago, biek in onartu beharra dago sintoni ona izan dugu, egiak esan behar dira, eta biek in sintoni ona daukagu zorionez, baina ez da inolako aginaldorik, askotan harritu egiten naiz nola notizi bat, notizi printzipala bihurtzen den notizi sekundarioan, ez da... edo bigarren notizian, ez? Eta bigarren notizia saltatzen du beti aurrenengoan, ez? Ez da aurrenengo aldia, azkenaldian hori ikusten dudana, zeren nire harridurarako beste notizi batzuk ere, bigarren notizia edo kontzekuentziko notizia bihurtzen da notizi printzipalean, eta notizi printzipalari buruz, ez da ezertxore esaten.

Baina berriz diot, noski ondo etortzen zaigula, Zumaia Lantzeri ere ekonomikoki ondo datorkiolako, baina hori eta garrantzitsuagoa da Zumaiian eta aurrenengo aldiz eta hori da notizia alkilerrezko etxebizitzak egiten direla eta zorionez, hori da Zumaiar guztiontzat, besterik ez. PNV

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.(EAJ-PNV): Bai...

PILAR ETXABE IRIONDO AND.(INDEPENDIENTE): Egon barkatu eh? O sea, el burro por delante. Gauza bat da kargua kentzea niri eta beste bat hitza ere ez ematea. O sea...

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA): Barkatu, Pili, pasa egin zait.

PILAR ETXABE IRIONDO AND. (INDEPENDIENTE): Bale, ba... lehengoan egin zenuen eta pentsatu nuen, bale... oraindik ez da ohitu, baina gaur...

Nik aurrenengo puntutik egin behar dudana da... salatu orain arte bi urtetan honen berririk ez dudala hitzik ere entzun, ezta negoziaketak nondik nora zihoazten, ezta bazegoenik ere, ez zegoenik ere, ezertxore ez; hori ba... salatu egiten dut hemen; hemendik aurrera espero dut ba.. batzordeetan egotea eta nire hitza ere edo besteen negoziazioak ere horren berri edukitzea.

Eta besterik gabe, aldeko botoa.

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA): Nik bakarrik esan, hori ez dela egia. PNV,

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.(EAJ-PNV): Nahi nuke komentatu, zuk esaten duzu ba... gai printzipala dela hitzarmen hau hona ekartzea eta onartzea, guretzat hau garrantzitsua izan da; garrantzitsuagoa da Zumaia Lantzenen egoera ekonomikoa, zeren, Zumaia Lantzenek beste egoera ekonomiko bat edukiko baluke igual hitzarmen hau ez zen guretzat hain ona, baina ikusita egoera ekonomikoa nolakoa den ezinbeste daukagu hau onartu beharra, zeren ez dago beste alternatibarik, hau ez baldin bada onartzen, hitzarmen hau ez baldin bada onartzen, ba... benetan Zumaia Lantzenen egoera, ba... ez dakit, nola definitu, baina benetan katastrofikoa izango litzateke, orduan ba... kontzekuentzia da hau... gure aldeko botoa; ba... dudarik gabe gure aldeko botoa gai honi, eta hitzarmen honi, baina Zumaia Lantzenen egoera ikusita ez daukagulako beste alternatibarik eta beste alternatibarik ez zaigulako presentatu, baina lehen ere komentatu dut ba.. bueno.. igual gauzak beste era batera egonez gero ba... alternatiba desberdinak egongo litzazke eta igual Zumaia Lantzen bera izango litzake gai etxebizitza horiek egiteko eta ez Gobernu, eta alokairuan egiteko eta ez Gobernu, ez?

Eta bukatzeko esan, guk espero dugula ba... legealdia bukatu baino lehen makinak hor egotea eta benetan hemen sinatzen duguna, ba... lehenbaitlehen martxan egotea,

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ.(PSE-PSOE) : Espero que no te refieras a lo del Gobierno por parte nuestra, porque no hemos estado nunca como tal en el Gobierno, me refiero a Andoni, pero de todas las maneras como comprenderas no podemos venir nosotros aquí a glosar lo que... los triunfos de la comisión de Gobierno, porque sería por nuestra parte lo más absurdo que podríamos hacer en un pleno o en una gestión municipal, la reconocemos, se ha conseguido el acuerdo, bienvenido sea, y nos parece muy bien y eso es lo que estamos diciendo.

Pero no cabe la menor duda que también hay que decir que gracias a este acuerdo como repito y he dicho antes, Zumaia Lantzen va a poder seguir, sino, yo, personalmente tengo muchas dudas de que en la situación llegado ahora a finales de diciembre la posibilidad o no de renovar los dos millones y medio de crédito que tiene si no lo renueva ni los puede pagar porque no tiene fondos ni el Ayuntamiento en principio, parece ser que tenía la

posibilidad incluso de poder apoyar esa renovación de fondo, dime tú que salida le quedaba a Zumaia Lantzen?

Pues la verdad es que... he dicho antes, tendríamos que estar encendiendo la velita como tal...para despedirla.

Eso es lo que es nuestra obligación y nuestra misión, porque es así, celebrar el acuerdo y también denunciar las políticas que consideramos erróneas, no quiere decir que si nosotros mañana estuviéramos en la comisión de Gobierno no podríamos errar exactamente igual que los demás; por qué no?

Pero si hay un error en la comisión de Gobierno por qué no lo voy a poder denunciar? Lo denuncio y lo digo con toda la claridad del mundo, porque así es; y éso no quita para que apoye el acuerdo con todas las garantías del mundo, porque también reconozco que el acuerdo es bueno, Por qué?

En principio por la... solución en parte pero no deja de ser una solución económica Zumaia Lantzen; en segundo lugar tú Iñaki dices que se cumple una promesa como tal de vivienda social. Pues me parece muy bien, pero creo que la vivienda social, aquí ya había incluso anteriormente un bloque que se tenía para hacer vivienda social, en alquiler, sí, pero bien... vivienda social que el Gobierno Vasco de entonces no quiso ejecutar porque consideró que sólo ese bloque no lo ejecutaba, sino que ejecutaba todo. Una forma de hacer política como otra cualquiera, no se trata de criticarla, sino simplemente lo que en su momento dijo el anterior Gobierno Vasco.

Este ha llegado ahora a un acuerdo, también ejecuta otra serie de vivienda como es la normal y bueno... la VPO y demás y se ejecuta; por lo tanto, el acuerdo es bueno y lo aprobamos; pero lo que no me pidais es que apruebe la gestión hasta ahora desarrollada por vuestra parte con Zumaia Lantzen porque la considero completamente errónea, porque una herramienta de trabajo que ha servido al Ayuntamiento y creo que debería de seguir sirviéndole, si lo ahogamos económicamente, no sirve para nada ni para nadie y por lo tanto es de... digamos, de recibo este acuerdo precisamente porque acaba con esa política errática o por lo menos equivocada que yo entiendo que ha habido hasta ahora con Zumaia Lantzen,

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA) : Zuek...

SRA. PALOMA HEREDERO NEGREDO.(PSE-PSOE) : Al principio de este mandato, en alguno de los programas que vosotros presentábais, no figuraba cargarse a Zumaia Lantzen? Y acabar con ella?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.(TALDE MISTOA): Ninguno,



SRA. PALOMA HEREDERO NEGREDO. (PSE-PSOE): No? Vale, gracias,  
Por eso decía que no quería yo que... sólo una pregunta que me viene a la mente, porque yo tenía entendido algo así... gracias,

CRISTINA FORCADA UNANUE AND.(ARALAR/ALTERNATIBA):  
Yo sí quiero hacer una puntualización a lo que ha dicho Emiliano.  
El anterior Gobierno Vasco no hizo viviendas sociales en Zumaia, porque Zumaia Lantzen cuando fué a proponérselos ya había dado toda la parte del parcel que podía dar para que se pudieran hacer viviendas sociales, sólo esa puntualización,

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Solo puntualizarte que éso es lo que yo he dicho,

CRISTINA FORCADA UNANUE AND.(ARALAR/ALTERNATIBA):  
No, no, no has dicho éso.

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ.(PSE-PSOE): No?

CRISTINA FORCADA UNANUE AND.(ARALAR/ALTERNATIBA):  
Para cuando fué Zumaia Lantzen al Gobierno Vasco ya no se podían hacer viviendas sociales en Zumaia, porque ya habían repartido la parte del pastel de forma de que no pudieran hacerse viviendas sociales.  
Ahí, estaba mi Jefe anteriormente, el de Ezker Batua, y éso es así,

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.(EAJ-PNV): Yo una duda; Qué es éso del pastel o qué....?

CRISTINA FORCADA UNANUE AND.(ARALAR/ALTERNATIBA):  
Y no sé que miedo hay, qué miedo hay a que desaparezca Zumaia Lantzen, ¡ madre mía! ¡qué miedo!

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.(TALDE MISTOA): Nik pixkat bigarrenko errondan hontan ere esan diren batzuri ba.. azaletik bada ere erantzuteko,

Lidek komentatzen du agian egoera ekonomikoa beste bat izango balitz, ba.. Zumaia Lantzenek, berak, egiteko aukera izango zituela babes ofizialeko etxebizitzak alokairuan; egoera ekonomikoa beste bat izan da, krisi egoeran ba... ez gara egon; azkenengo hamabost urteetan, azkenengo hamabost urteetan egoera ekonomiko ona izan da, hazkunde ekonomiko haundia, haundiegia, ikusi dugun bezala, zeren orain etorri da horren buelta, egoera ekonomiko on batean, Zumaia Lantzenen kudeaketa eta Udaletxe honen kudeaketa zuen esku egon da eta ez duzute gaitasunik eduki, orain egin ahal izango zenuketeen hori egiteko; agian gu egongo bagina, agian egoera ekonomikoa beste bat izango balitz, ez dakit, Zumaia Lantzenek bere kabuz alokairuan imposiblea da ateratzea eta hori zuek jakin beharko zenukete ba... Zumaia Lantzenen Lehendakaritzan horrenbeste urte eman eta gero, Zumaia Lantzenek ez duela gaitasun ekonomikorik babes ofizialeko etxebizitzak alokairuan ateratzeko. Ez dauka.

Eusko Jaurlaritzak etorri behar du, beste erakunde potenteago bat, sortutze gaitasun batekin, finantziario gaitasun potente batekin ba... alokairuan merkatura atera ahal izateko, baina bueno... es ke.. niri ba... pelikularen altura hontara PNV-ko bozeraemaileak inozo, inozo ba.. esatea ba... agian Zumaia Lantzenek egiten..... ba... honezkero ondo jakin beharko zenuke imposiblea dela; imposiblea izan zen lehen; eta imposiblea izango litzateke hemendik aurrera ere; horregatik ba.... erakunde supramunicipalak edo parte hartu behar dute.

Eta gero egia da, Zumaia Lantzenen egoera ekonomikoa ez dela ona; baina Zumaia Lantzenena ez da ona beste inorena ez den bezalaxe eh?; Zumaia Lantzen ez dabil mundu paralelo baten, krisi egoera ere Zumaia Lantzenen eragiten dio eta guk dakigula behintzat, ez ditugu obrak berri eta proiektu faraonikorik martxan jarri; egoera ekonomiko honen egoera da, ba... gure gestioa da eta aurreko planen onarpenetatik.

Gu saiatzen ari gara egoera ekonomikoa hobetzen: garajeak merketuz; kudeaketa gastuak merketuz; akordio onak lortzen eta bueno... gaur hemen akordio on bat daukagu; hau bariabile bat da onerako, baina egoera ekonomikoa beste bat izango balitz! Hombre!, krisirik egongo ez balitz! Hombre! Diputazioak zergak jaitziko ez balitu! Hombre! Ba... hemen bakoitzak fijatzea dauka, fijatzea nahi duen lekuan, baina... ez dugu, ez dakit, -el rábano- ez dugu heldu behar -por las hojas- hau ona da, edo txarra da, egoera da dena; honek egoera mejoeratuko du, hau egongo ez balitz?, hau dago; hau egongo ez balitz?, ez, hau dago eta dagoenari buruz, eta ez hipotesiei buruz hitz egiten nahiko lan badaukagu, orduan ba...

hipotesiak laga ditzagun alde batetara eta errealitatetaz hitz egin dezagun, errealitatea, hitzarmena, hitzarmena ona, hitzarmen onartu eta konplikatut gabe eta liatu gabe, ba... nik uste dut, ba.. plenoak ere ba... baduela ia bukatzeko ordua eta berea eman duela, nere ustez behintzat, ez zuen horrenbesteraino ematen pleno honek baina beti bilatzen diogu ba... nondik atera punta eta bueno ba.. atera diogu gaurkoan ere.

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA) :Bateren batek gehiago zerbait esateko,  
Ezerrez.

Ez, nik galdetu dut, bateren batek gehiago... zerbait esateko?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Ez

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA) : Galdera zabala zen, ez itxia.  
Ba... orduan besterik gabe botatzera pasako gara, PNV?

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.(EAJ-PNV) : Aldeko botoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA) : Aldeko botoa, PSOE?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ.(PSE-PSOE) : A favor,

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA) : Aldeko botoa, Aralar-Alternatiba?

XABIER OLAIZOLA ANTIA JNA.(ARALAR/ALTERNATIBA): Aldeko botoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA) : Aldeko botoa, Talde Mistoa?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA.(TALDE MISTOA) : Aldeko botoa,

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA) : Aldeko botoa,

EA-k aldeko botoa, Pili Etxabek?

PILAR ETXABE IRIONDO AND.(INDEPENDIENTE): Aldeko botoa,  
Baina zuk azkena esan beharko zenuke Alkate bezala, iruditzen zait eh?

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA) : Hori erregulatzeko daukagu eta nik uste dut momentu hau iritsi dela –por cierto- esateko erregulatu egin behar dugula, porque noski, hemen grupo politikoei, bozeraemaileak dauzka grupo politiko bakoitzak etbr... etbr... etbr... eta gainera izendatzen dira pleno hasieran eta gero... orain daude –no adscritos- eta daude –Talde Mistoak- eta daude abar... hori erregulatu egin beharko dugu, hartuko dugu oinarri batzuk eta ea Junta de Portavoces edo Bozeraemaileen batzordetik pasatzen dugun eta horrelako zerbait egiten dugun.

Bakoitzari bere denbora hemen, bozeraemaileei, no adscritosei, bakoitzak bere garrantzia eta bere denbora dute eta,

Palomak, seguru asko, horren beri asko jakingo duela, ia ikusten dut eskua altxatzen –dí lo que quieras-

SRA. PALOMA HEREDERO NEGREDO.(PSE-PSOE).- Sí, sí pero yo lo que quería decir era respecto a las actas; independientemente de ahora del tema éste de los adscritos, no adscritos y demás que evidentemente hay que regular, lo que sí que quiero decir es que releendo las actas tengo varias cosas que decir, pero ésto entrará en otro pleno, porque éste al ser extraordinario, entiendo que no hay ruegos y preguntas.

Pero sí que hay algo que ya de aquí... –aprovechando que el Pisuerga pasa por Valladolid- decir que viendo las votaciones aquí siempre se pone el nombre de las personas que realmente dicen, ejercen, toman la palabra a la hora de decir las votaciones y según las lees cuando uno lee las actas parece que aquí no hay grupos políticos, evidentemente uno habla como portavoz de un grupo político de una organización política, entonces sería interesante que a la vez que se pone el nombre, (no entro, ni salgo en si hay que poner el nombre de la persona) pero sí por favor que se ponga al menos, entre paréntesis al grupo político al que pertenece porque sino parece que aquí todos somos independentientes y éste no es el caso, gracias,

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA) : Estoy de acuerdo,

Besterik gabe;

Bueno me dice, que en las votaciones ya se pone. Paloma se refiere a cuando interviene cada uno pues que sepa al grupo político al que pertenece, eso es.

#### ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 12 boto (3 EAJ-PNV; 2 PSOE; 3 Talde Mistoa; 2 Aralar/Alternatiba, 1 EA; 1 Independentea;)

Aurkako botuak: 0

Abstentzioak: 0

**LEHENENGOA:** EUSKO JAURLARITZA, ZUMAIA LANTZEN ETA ZUMAIKO UDALEN ARTEKO HITZARMENA AHO BATEZ ONARTZEA,

#### PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 12 votos ( 3 EAJ-PNV; 2 PSOE; 3 Grupo Mixto; 2 Aralar/Alternatiba; 1 EA; 1 Independiente)

Votos en contra: 0

Abstenciones: 0

**PRIMERO:** APROBAR POR UNANIMIDAD EL CONVENIO PUNTANUETA; GOBIERNO VASCO; ZUMAIA LANTZEN y AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA.

Eskerrik asko

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat ematen du, gaueko bederatziak direnean eta nik Idazkariak fede ematen dut,

Alkateak,

No habiendo más temas que tratar, el Alcalde-Presidente dá por finalizada la sesión cuando son las veintiuna horas y yo el Secretaría doy fé,

Idazkariak,